



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko IRALAREN 4ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko 4ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Xabier Mugika Letamendia
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2018ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - 2018ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2018 ekitaldirako langileen ordainsariei buruzko Eudelek eginiko gomendioaren onspena, hala bada.**
5. **Donostiako lan arloko 2 zk.ko epaitegiak emandako 233/2018 dekretuaren berri eman eta bertan agintzen duena betetzea, hala bada.**
6. **Sormenaren kabia beka esleitzea, hala bada.**
7. **Alkizako Udalaren eta Naturtzaindia-ren arteko hitzarmenaren onspena, hala bada.**
8. **Beste batzuk.**
9. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHEN PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2018ko uztailaren 3ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2018ko uztailaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

38/2018 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 12koa, Larraulgo Udalari 200 aulki uztea, San Esteban eta San Bartolome herriko jaietan, ebazten duena.

39/2018 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 1koa, M.E.M. jaunari Don Juanena etxean dagoen apartamentua erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

40/2018 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 1koa, M.E.M. jaunari Alkizako Herri ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren esleipena egitea, ebazten duena.

41/2018 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 13koa, A.G.M. andreari bi ibilgailuei behin betiko baja emateagatik, ibilgailu hauei dagokien trakzio meknikodun zergaren zati proportzionala bueltatzea, ebazten duena.

42/2018 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 29koa, Alkizako Udaleko 2018 urteko lehenengo seihilabeteko uraren tasaren udal errolda onestea, ebazten duena.

43/2018 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, U.O. andreari bi ibilgailuei behin betiko baja emateagatik, ibilgailu hauei dagokien trakzio meknikodun zergaren zati proportzionala bueltatzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZURIARRAIN ITURGINTZA	376,31
RECAMBIOS IBARRA	47,80
ACSOL	78,82
ACSOL	14,45
DIMARPE	231,05
EUSKALTEL	108,38
LAVANDERIA LIZARRA	119,26
GORKA SALABERRIA	60,50
ANTONIO ELOSEGUI	163,88
BIDATEK	211,75
BIDATEK	1.677,06
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	139,09
ARGITU	161,23
CALPARSORO INDUSTRIAL	51,52
EGIMENDI	16,73
EBA ERKIZIA	1.536,72
ULAHI	61,20
DIONISIO ORMAZABAL	10,29
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	332,75
IZADI	2.855,60
TOLOMENDI	155,55
CORREOS	20,45
TINTA INPRIMATEGIA	397,26
SOLRED	59,94
FONTANERIA ANTZIETA	618,79
AKETEGI	28,00
MERKAOIL	784,08
ANTZA	441,65
ACSOL	18,46
IBERDROLA	22,00
BULEGOAK	214,52
NORTEGAS	30,82
NORTEGAS	10,56
NORTEGAS	15,06

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.071,53** eurotako kopurua duen faktura zerrendari

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2018 EKITALDIRAKO LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO EUDELEK EGINIKO GOMENDIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:

“ LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2018KO EKITALDIRAKO

2018-07-04an **Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea** argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean; arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta gure administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Artikuluak hitzez hitz esaten duena ikusita eta egin daitezkeen interpretazioak argitzeko, EUDELEk egokitzen jo du **GOMENDIO** hau egitea EAEko udalei:

- **Aipatutako 18.Bi artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.**
- **Bestetik, 18.Bi artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar (2018ko uztailaren 13an jakinarazia).**
- **Aurreko 18.Bi artikulua laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko* aurrekontuan superabita duten EAEko udalerriei gomendatzen diegu soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu-aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikulua laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez. 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabitik izan ez duten udalerritan, EUDELEk gomendatzen du soldata-masaren %0,2ko igoera egitea.**

GOMENDIO honen bidez, EUDELEk lege-agindu horren irismena argitu nahi du, eta, aldi berean, jasota utzi nahi du legearen barruan interpelatzeko interesa duela,



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

administrazio publikoko langileentzat onuragarrien den eran, betiere, instituzioak eraginkorragoak izan daitezten eta lan-inguruneak kalitate handiagoa izan dezan, horrela, etorkizunean errazagoa izango delakoan UDALHITZ akordio arautzaile berria lortzeko negoziazio kolektiboaren esparruan aurrera egitea.

UDALHITZ 2008-2010 Akordioa ezarritako baldintzetan betetzearen garrantzia berresten du EUDELEk, lortutako akordioak errealitatean betetzea baita haien bermerik onena. Horrez gain, zilegitasuna erakutsi egiten du, akordio sektorial berri bat lortzeko.

**"Aurrekontuko superabita" terminoari dagokionez, gure esparruan Aurrekontuko egonkortasun eta finantza-iraunkortasunerako apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak 11. artikuluan xedatutako eran ulertuko da, lege horrek arautzen baitu aurrekontuko egonkortasunerako printzipioaren instrumentazioa; hori gorabehera, eskumena duten erakundeek kontzeptu hori kalkulatzeko egokiak diren azalpenak eta/edo jarraibideak eman ahal izango dituzte.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2018 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 1. eta 2.go puntuak bere osotasunean onestea eta aplikatzea. Ondorengoak izanik:

- **Aipatutako 18.Bi artikulua lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.**
- **Bestetik, 18.Bi artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar (2018ko uztailaren 13an jakinarazia).**

BIGARRENA: 2018 ekitaldirako, langileen ordainsariei buruzko EUDEL-ek egindako gomendioaren 3. Puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto argitu arte.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARREN PUNTUA

**DONOSTIAKO LAN ARLOKO 2 zk.ko EPAITEGIAK EMANDAKO 233/2018
DEKRETUAREN BERRI EMAN ETA BERTAN AGINTZEN DUENA
BETETZEA, HALA BADA**

Ikusirik Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpena non ondorengoa dioen:

“.../...

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO: El presente proceso sobre despido ha sido promovido por M.I.G.L. figurando como parte demandada AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.

Se ha señalado para la celebración de los actos de conciliación y juicio el día 05/10/2018, a las 10:30.

SEGUNDO: Con anterioridad a la fecha señalada para la celebración de los actos de conciliación y juicio, han comparecido ante esta Oficina judicial todas las partes y han alcanzado el siguiente acuerdo:

La Mancomunidad reconoce la improcedencia del despido, con fecha de efectos de 16 de julio de 2018 y ofrece el abono de una indemnización por importe de 51.922,97€ que serán ingresados en la cuenta corriente de la actora antes del día 15 de septiembre del presente año.

La parte actora muestra su conformidad.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

ÚNICO: Dispone el artículo 82 de la Ley de la Jurisdicción Social (LJS), en su apartado tercero, que las partes podrán formalizar conciliación en evitación del juicio, por medio de comparecencia ante la oficina judicial, sin esperar al día señalado para los actos de conciliación y juicio. De alcanzarse acuerdo en dicha comparecencia, corresponde al Letrado de la Administración de Justicia su aprobación, debiendo decretar el archivo de las actuaciones, siempre que lo acordado no sea constitutivo de lesión grave para alguna de las partes o para terceros, de fraude de ley o de abuso de derecho o contrario al interés público.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

En este caso, no concurre ninguna de las circunstancias que impiden la aprobación de la avenencia por el Letrado de la Administración de Justicia.

PARTE DISPOSITIVA

Se aprueba la avenencia alcanzada por las parte sen el acto de conciliación celebrado ante el Letrado de la Administración de Justicia que suscribe.

Se deja sin efecto el señalamiento de la fecha para la celebración de los actos de conciliación y juicio.

.../...

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpenaren berri jasotzen da, bertan jasota dagoenarekin bat eginik.

BIGARRENA: Donostiako Lan arloko 2 zk. Epaitegiaren 20.05.4-18/002077 ebazpenena jasota dagoena betetzeko, Aiztondo Mankomunitateari 19.471,11 eurotako ekarpena burutzea 2018ko irailaren 15a baino lehen.

HIRUGARRENA: 19.471,11 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 2018ko udal aurrekontuetako 130.332.10.02 partidaren kargura egin dadin agintzea.

SEIGARREN PUNTUA

SORMENAREN KABIA BEKA-ren ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik, Fagus Alkiza Intepretazio Zentroak, Gipuzkoako kultura maparen barruan egitasmo artistiko berri bat jarri duela abian: Sormenaren Kabia Egonaldi Artistikoak.

Ikusirik, Artistentzako hausnarketarako, sormenerako eta lanerako gunea bat sortu eta landa ingurua eta artea eskutik doazela erakutsi nahi dela. Sormenaren Kabia kultura eta ezagutzak elkarbanatzeko, ikerketarako eta difusiorako gunea izateko xedearekin jaio da. Artearen sorkuntza gizarteratzeko eta sozializatzekeo tresna izan nahi du Gipuzkoa osorako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Alkiza, bere kokapen geografikoagatik, gune estrategiko batean dagoela: Hernio mendiaren magalean, Europa 2000 Sarean aitortutako naturgune zoragarri baten erdian dago Alkiza. Gipuzkoaren bihotzean, herri giro lasaia eskaintzen du eta aldi berean, kilometro gutxira ditugu Donostia, Baiona, Bilbo naiz Euskal Herriko gainerako hiriburuak zein aireportuak ere. Alkiza natur ingurune paregabe dago, mundutik gertu, baina, hiriko erritmo eta zaratatik urrun.

Ikusirik, Sortzaileen eta herritarren artean elkarlana eta sinergiak sortzeko aukera eskainiko duela Sormenaren Kabia-k. Hala, proiektuan parte hartzen duten artistei herriko eragileekin zein gainerako herritarrekin hartu-emanak izateko aukera emango zaie.

Ikusirik, Sormenaren Kabia Alkizako Udalak, Fagus Alkiza Interpretazio Zentroak, Alkizako Ostatuak, Lete Nezakaletxeak, Inazio Urruzola Txakolindegia eta Koldobika Jauregiren Ur Mara Museoak sustatutako proiektua dela.

Ikusirik, aipaturiko Proiektua gauzatu ahal izateko, deialdi ireki bat egiteko oinarriak zehaztu direla eragileen artean. Deialdi hau, udalaren web orrialdean zein Fagus Alkiza Interpretazio Zentroarenean zintzilikatzeaz gainera, sare sozialetan eta komunikabideetan ere zabaldu da.

Ikusirik, deialdiaren ostean 23 proiektu aurkeztu direla.

Ikusirik, hasiera bateko asmoa artista bakarraren lana saritzea bazen ere, finalera iritsi diren bi proiektuen maila ona ikusirik, epaimahiak azkenik, beka **Kimia Kamvariri eta Txiki Keixetari ex aequo** ematea erabaki du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kimia Kamvari andreaki eta Txiki Keixeta jaunari, bakoitzari, 1.000 euroko beka ematea. Alkizako herrian 15 eguneko egonaldia ordainduko zaielarik, Lete nekazal etxean, euren proiektuak garatu ahal izateko.

BIGARRENA: Kimia Kamvari andreaki eta Txiki Keixeta jaunari, Lete nekazal etxean 15 eguneko egonaldia ordaintzea, euren proiektuak garatu ahal izateko.

HIRUGARRENA: 2.000 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa 629.172.00.01 partidaren kargura egin dezan agintzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALAREN ETA NATURTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko Lankidetzahitzarmena prestatu dela, Hernio Gazume KBE barneko Udal sailetan, Udalak lortutako Eusko Jaurlaritzako laguntzen kudeaketa Naturtzaindiak egiteko. Erabaki honi atxikitzen zaiolarik.

Ikusirik, Udal Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei, ohartarazten diela, puntu honetan Kontratu Legea aplikatu beharko zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko Lankidetzahitzarmena onestea, non Hernio Gazume KBE barneko Udal sailetan Udalak lortutako Eusko Jaurlaritzako laguntzen kudeaketa egingo duen Naturtzaindiak.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez jauna ahalmenu Naturtzaindiarekin aipaturiko lankidetzahitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Naturtzaindiari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

8.1. ALKIZAKO HERRIGUNEKO SEINALIZAZIO LANEN ORDAINKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herriguneko seinalizazio lanak 2018ko uztailaren 3an eginiko udalbatzarrean, GALEMYS, S.L. enpresari esleitu zirela, lanak gauzatu direlarik.

Ikusirik Alkizako Herrigunean seinalizazio lanak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, Landa inguruneko eta Lurralde Orekako departamentuak, 3.980,33 eurotako diru-laguntza esleitu diola Alkizako Udalari.

Ikusirik, GALEMYS, S.L.-k, aipaturiko lanak burutu direla. Bere zenbatekoa 6.870,37 euro delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako herriguneko seinaleztapenaren lanak burutu direnez, GALEMYS S.L. enpresak auzkezturiko 842018 eta 852018 fakturak onestea, guztira 6.870,37 eurotako diru kopurua izanik.

BIGARRENA: 6.870,37 eurotako gastua onestea eta 2018 aurrekontuetako 1 0000.625.153.00.01 partidaren kargura bere ordainketa egin dadin agintzea.

8.2. ALKIZAKO BELAKA-SAROB E BIDEAREN KONPONTZE LANEN ORDAINKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Belaka-Sarobe bidearen konpontze lanak, 2018ko uztailaren 3an eginiko udalbatzarrean, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUA enpresari esleitu zitziolak, lanak gauzatu direlarik.

Ikusirik, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUA enpresak, aipaturiko lanak burutu dituela. Bere zenbatekoa 4.052,53 euro delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Belaka-Sarobe bidearen lanak burutu direnez, OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUA enpresak auzkezturiko 1282018 faktura onestea, guztira 4.052,53 eurotako diru kopurua izanik.

BIGARRENA: 4.052,53 eurotako gastua onestea eta 2018 aurrekontuetako 1 0000.601.153.00.01 partidaren kargura bere ordainketa egin dadin agintzea.

8.3. HERRIKO JAIETAN GARBIKETA LANAK EGITEKO BI PERTSONA KONTRATATZEA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herriko jaietan (irailaren 6tik 10era biak barne) garbiketa lanak egiteko bi pertsona asmoa dagoela egunean bi ordutarako, udal langileari laguntzeko. Deialdia LANBIDE bitartez egiteko proposatzen delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatzarrak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Herriko jaietan, irailaren 6tik 11-ra bitartean (biak barne), egunean bi orduz lan egiteko, bi pertsona kontratatzeko deialdia, LANBIDEN bitartez egitea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.